ERABAKIAK

Ermua'n, Euskal Idazleen Jardunaldietan bildutako idazleek, erabaki hauek artu dituzte:

1 *Letamendia, Garmendia ta Laspiur'en ponentziak ontzat hartu. Xalbador Garmedia'renak hobeki azalduko dira beste agerpen baten.*

2 *Euskal idazleen alkarte bat sortu, San Martiñ'ek bere ponentzian azaldu duan bezela. Hori sortzeko batzorde bat autatzen da, sei lagunekoa: Juan San Martin, Jose Luis Lizundia, Iñaki Beobide, Joan M. Torrealday, Xabier Gereño ta Manex Pagola. Hauek, bideak gertutzen dituztenean, dei bat egin beharko diete euskal idazle guztieri batzar orokor batera.*

3 *JAKIN aldizkaria oraindixek lotzen da Oñati'n Iraillean Euskaltziandiak artuko dituen erabakietara. ANAITASUNA'K, Bizkai'ko aldizkaria danez, bizkaieraz idazten jarraituko du, baiñan orrialde bat aterako du euskera literario batuan, Bizkai'ko herrialdea gertutzen joateko. Fonetismoak eta baztertuko ditu zearo, aditzean ezingo du oraindik bizkaiera utzi. ANAITASUNA'ren jokabidea ontzat hartzen da, ta eskabide berdiña egiten zaio "Príncipe de Viana'ri".*

4 *Aditzaren batasuna beharrezkoa dala ikusten da. Hortarako bereiziki batzorde bat sortzea eskatzen zaio Euskaltzaindiari, bertarako hauek proposatuaz: Mitxelena, Lafitte, Itxausti, Berriatua, Mendizabal eta Iraizoz.*

5 *Euskal Herriko egunerokoeri euskerazko sail bat sortzea edo lehengoa gehitzea ontzat hartzen da. Nola eta noiz egin, sortuko dan Alkartearen eskuetan uzten da.*

6 *H'ri buruz, Bayona'ko erabakiak ontzat hartzen dira. Monzon jaunari h'ren arrazoiak adierazotzea eskatzen zaio. Lafitte, Haritxelar eta Larzabal jauneri, h'a, nun eta noiz erabilli behar dan azaltzea eskatzen zaie.*

7 *Euskaltzaindiari eskatzen zaio, Oñati'ko Batzarrean hartzen diran erabakiak, al danik eta azkarren "EUSKERA" bere aldizkariaren separata batean ateratzeko, herriaren eta idazleen jakinbiderako.*

8 *"Hegosa" etxeari proposatu, Aingeru Irigaray jaunaren eskabidez, Karmelo Etxenagusiaren antologi biak, Bizkai'koa ta Gipuzkoa'koa argitaratzea.*

9 *Ikastoletako andereño ta zuzendarieri laguntza eskeiñi, euskera literario batuari buruz: hitzaldiak, ikasteak, arrazoiak eta abar.*

Ermua'n, 1968'ko Bagillaren 30'ean.

Lasuen, Aranberria ta Basauri, *mahiburukoak;*
Lizundia,*idazkaria.*